

MAÑARITIK
ATXETARA



Mañaritik Atxetara 2026

III. Edizioa

2026/09/19

LASTERKARIAREN GIDA

www.mañaritikatxetara.com



Ongi etorri Mañaritik Atxetarako hirugarren ediziora!

Eta aurten ere ibilbide gogor, tekniko eta aldi berean paisaia zoragarritz goatzeko aukera izango duzu Urkiolako Parke Naturaleko txoko ederretatik.

Bost ibilbide, bost aukera atxaz beteriko ibilbideetan barneratu eta egun polit bat izateko mendirik-mendi.

Mañariko herriak eta boluntario guztiek besoak zabalik hartuko zaituzte.

Ez da erraza izango Mañaritik irten eta berriro helmuga zapaltzea, baina bideak mereziko du, seguru baietz!

Goza dezazuela inguru eder bezain gogorrez!



AURKIBIDEA

1.	AGENDA	4
2.	LASTERKETA ORDUTEGIAK	5
3.	IBILBIDEEN XEHETASUNAK	6
4.	IBILBIDEEN DATU TEKNIKOAK ETA PERFILAK	7
4.1.	43K lasterketa	7
4.2.	22K lasterketa	11
4.3.	13K lasterketa	13
4.4.	Untzillaitz Zuzen igoera bertikala	14
4.5.	Mendi martxa	14
5.	DORTSALEN BANAKETA	15
6.	DERRIGORREZKO MATERIALA	15
7.	KONTSIGNA ETA DUTXAK	15
8.	HORNIDURA PUNTUAK, DENBORA MUGAK ETA IGAROTZE KONTROLAK	16
9.	LASTERKETA UZTEA	16
10.	KATEGORIAK	17
11.	SARIAK	17
12.	DURANGALDEKO KOPA	17
13.	NOLA HELDU	18
14.	ANTOLAKUNTZAKO MAPAK	19
14.1.	Irteera/Helmuga gunea	19
14.2.	Aparkaleku eta lotarako gunek	19
14.3.	Herriko jatetxeak	20
14.4.	Hontza museoa	20
14.4.	Herriko denda	21
15.	LASTERKETA NON IKUSI	21
16.	ANTOLATZAILEEN OHAR ETA ESKUBIDEAK	24
17.	BABESLE NAGUSIAK ETA LAGUNTZAILEAK	25

1. AGENDA

Mañaritik Atxetarako mendi lasterketaren inguruan sortuko diren ekintza guztien agenda ondorengoa da:

Irailak 18

17:00-19:00 Dortsal banaketa

19:00 'LJ75' antzerki emanaldia BARSANTI antzerki konpainiaren eskutik

Irailak 19

7:00-9:00 Dortsal banaketa eta martxako azken uneko izen-emateak

8:00 43K lasterketaren irteera

8:15 Mendi martxaren irteera

9:00 22K lasterketaren irteera

9:15 Untzillaitz Zuzen lasterketaren irteera

9:30 13K lasterketaren irteera

10:50 13K lasterketako lehenak helmugan

11:20 22K lasterketako lehenak helmugan

13:00 13K, 22K eta Untzillaitz Zuzen lasterketen sari banaketa

13:30 43k lasterketako lehenak helmugan

16:00 Umeentzako lasterketak (3-14 urte)

16:30 43K lasterketaren sari banaketa

19:00 43k lasterketako azken lasterkariei ongietorria

2. LASTERKETA ORDUTEGIAK

43K lasterketa:

Irteera: 2026/09/19, goizeko 08:00tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Mañariko udaletxeko plaza. 19:00tan kontrola itxiko da.

22K lasterketa:

Irteera: 2026/09/19, goizeko 09:00tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Mañariko udaletxeko plaza. 15:00tan kontrola itxiko da.

13K lasterketa:

Irteera: 2026/09/19, goizeko 09:30tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Mañariko udaletxeko plaza. 12:15tan kontrola itxiko da.

‘Untzillaitz Zuzen’ igoera bertikala:

Irteera: 2026/09/19, goizeko 09:15tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Untzillaitz tontorra. 10:30tan kontrola itxiko da.

Mendi martxa:

Irteera: 2026/09/19, goizeko 08:15tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Mañariko udaletxeko plaza. 6 orduko limitea ezarri da mendizaleen segurtasuna bermatzeko.

3. IBILBIDEEN XEHETASUNAK

Ibilbide gogor eta teknikoen bila dabilen edonorentzat prestaturiko mendi bueltak Urkiola parke naturaleko paraje zoragarrietatik.

Modalitate guztiek 43K ibilbide nagusiaren zati handi bat partekatuko dute. Hasierako maldak 43K eta 13K lasterketek partekatuko dituzte Mugarrikolandaruntz abiatuz. Hortik 'Marmol'-eko kantera zaharretara jaitsi eta handik berriro Mugarrikolandara bueltatuko dira (lehen hornidura puntua) Artatxagane (996m) eta Leungane (1008m) igoaz segidan.

Lehen tontor hauen ostean Amudiako iturrira jaitsi eta Inunganeko aterpetxera iritsiko dira Mañarira itzultzeko jaitsierari ekinez. 13K lasterketakoek Mañarin emango diote bukaera ibilbideari. Bertan bigarren hornidura puntua egongo da 43K ibilbidekoentzat.

Mañaritik 22K, mendi martxa eta 43K-ko lasterketek ibilbidea zati handi batean partekatuko dute. Lehenik GR pistatik Gatzaieta baserriraino igoko da (hornidura puntua). Gero Atxartera jaitsierari ekingo zaio erromatarren bidetik. Behin Atxartera iritsiz, Astxikirako bideari ekingo zaio. Guenzelai aurretik 43K eta 22K-ko ibilbidean Artolarako bide ezagunetik igoaz joango da korrikalaria hasiera baten baina azken zatia atxa artetik sartuko da Astxikiren (785m) gailurrera igoaz. Mendi martxakoek Astxiki igo beharrean Pol-polerako bidea hartuko dute Guenzelaitik zuzen.

43K eta 22K lasterkariak Artolara Astxikiko bide klasikotik jaitsiko dira Anbotoko mendikatearen ipar alderantz joz, bigarren hornidura puntutik pasa eta Larranorantz (981m) igotzeko.

Puntu horretan 22K Pol-polerantz abiatuko dira eta 43K-koak Anboto magalerantz bere iparraldetik beti ere. Anbotoko kilometro bertikalaren ibilbidearekin bat egitean, Arrazolara jaitsi (hirugarren hornidura puntua) eta Zabalandirantz igoera gogor bezain politari ekingo diote. Mariren kobaren magaletik doan PR-ari jarraituz Zabalandira iritsi eta bertotik Pol-polerantz abiatuko direlarik 22K eta mendi martxako ibilbidearekin bat eginaz.

Ibilbideko azken aurreko zailtasuna Urkiolamendi (1011m) izango da. Bertotik Urkiolako santutegirantz abiatu, hiru gurutzeak pasatu eta berriro ere Gatzaietako hornidura puntura helduko dira lasterkariak azken maldari ekin aurretik. Mendi martxakoak hemendik zuzenean Mañarira itzuliko dira martxako hasierako malden bide beretik.

Untzillaitzeko diagonal txikia izango da eguneko azken oztopo nagusia 22K eta 43K lasterketetako korrikarientzat. Bai igoera zein jaitsiera teknikoei aurre egin beharko zaie Mañariko udaletxeko plazara iritsi eta lasterketari amaiera emateko.

Untzillaitz Zuzen igoera bertikalak aldiz, 43K eta 22K lasterketako lasterkariak egingo duten azken jaitsiera izango dute igoerako ibilbide bezala. Erronka gogor bezain ederra!

4. IBILBIDEEN DATU TEKNIKOAK ETA PERFILAK


4.1. 43K lasterketa

Distantzia totala: 43Km

Desnibel positibo totala: 3900m


Gehieneko altuera: 1008m

Denbora muga: 11h




7 hornidura puntu egongo dira lasterketa honetan. Ondoren azaltzen da hornidura puntu bakoitzaren arteko ibilbideen datuak.

Mañaria → Mugarririkolanda




Mugarrikolanda → Mañaria



DISTANTZIA	7,4 km
DESNIBEL POSITIBOA	206 m
DESNIBEL NEGATIBOA	895 m
GUTXIENeko ALTUERA	194 m
GEHIENeko ALTUERA	1008 m
DENBORA MUGA	2h45'


Zati honetan Amudiako iturrian ura hartzeko aukera izango duzue behar izanez gero.

Mañaria → Gatzaieta




DISTANTZIA	4,6 km
DESNIBEL POSITIBOA	408 m
DESNIBEL NEGATIBOA	47 m
GUTXIENeko ALTUERA	194 m
GEHIENeko ALTUERA	600 m
DENBORA MUGA	3h40'

Gatzaieta → Sagasta




DISTANTZIA	5,6 km
DESNIBEL POSITIBOA	556 m
DESNIBEL NEGATIBOA	568 m
GUTXIENeko ALTUERA	300 m
GEHIENeko ALTUERA	785 m
DENBORA MUGA	5h20'

Sagasta→Arrazola




Arrazola→Pol-pol




Zati honetan Zabalandiko iturrian ura hartzeko aukera izango duzue behar izanez gero.

Pol-pol→Gatzaieta



Gatzaieta-Mañaria (HELMUGA)



DISTANTZIA	5,4 km
DESNIBEL POSITIBOA	476 m
DESNIBEL NEGATIBOA	790 m
GUTXIENeko ALTUERA	194 m
GEHIENeko ALTUERA	941 m
DENBORA MUGA	11h




4.2. 22K lasterketa

Distantzia totala: 22,4km

Desnibel positibo totala: 2000m


Gehieneko altuera: 1008m

Denbora muga: 6h




4 hornidura puntu egongo dira lasterketa honetan. Ondoren azaltzen da hornidura puntu bakoitzaren arteko ibilbideen datuak.


Mañaria→Gatzaieta

	DISTANTZIA	4,6 km
	DESNIBEL POSITIBOA	408 m
	DESNIBEL NEGATIBOA	47 m
	GUTXIENeko ALTUERA	194 m
	GEHIENeko ALTUERA	600 m
	DENBORA MUGA	55'


Gatzaieta→Sagasta

	DISTANTZIA	5,6 km
	DESNIBEL POSITIBOA	556 m
	DESNIBEL NEGATIBOA	568 m
	GUTXIENeko ALTUERA	300 m
	GEHIENeko ALTUERA	785 m
	DENBORA MUGA	2h30'


Sagasta→POL-POL



Pol-pol→Gatzaieta



Gatzaieta→Mañaria (HELMUGA)




4.3. 13K lasterketa

Distantzia totala: 13,5Km

Desnibel positibo totala: 1100m


Gehieneko altuera: 1008m

Denbora muga: 2h45min




Hornidura puntu bat egongo da lasterketa honetan. Ondoren azaltzen da horniduraraino eta hortik helmugarako zatien datuak.

Mañaria→Mugarrikolanda

	DISTANTZIA	6,1 km
	DESNIBEL POSITIBOA	894 m
	DESNIBEL NEGATIBOA	205 m
	GUTXIENeko ALTUERA	194 m
	GEHIENeko ALTUERA	820 m
	DENBORA MUGA	1h25'

Mugarrikolanda→Mañaria

	DISTANTZIA	7,4 km
	DESNIBEL POSITIBOA	206 m
	DESNIBEL NEGATIBOA	895 m
	GUTXIENeko ALTUERA	194 m
	GEHIENeko ALTUERA	1008 m
	DENBORA MUGA	2h45'


Zati honetan Amudiako iturrian ura hartzeko aukera izango duzue behar izanez gero.

4.4. Untzillaitz Zuzen igoera bertikala

Distantzia totala: 2,9km

Desnibel positibo totala: 750m

Gehieneko altuera: 941m




4.5. Mendi martxa

Distantzia totala: 19km

Desnibel positibo totala: 1150m

Gehieneko altuera: 1008m



5. DORTSALEN BANAKETA

Dortsalen banaketa ostiral arratsaldean 17:00 eta 19:00 artean egingo da eta baita lasterketa egunean goizeko 7:00etatik aurrera Mañariko frontoian.

- 43K: 7:00-7:45
- 22K: 7:00-8:45
- 13K: 7:00-9:15
- 'Untzillaitz Zuzen' igoera bertikala: 7:00-9:00
- Mendi martxa: 7:00-8:15

Derrigorrezkoa da lasterketa osoan zehar dortsala gorputzaren aurreko aldean eta agerian eramatea. Dortsala jasotzerako orduan derrigorrezkoa izango da identifikazio txartel bat aurkeztea. Hirugarren pertsona batek dortsala jaso dezake lasterkariaren identifikazio txartel bat erakutsiz gero.

Mendi martxakoen kasuan txip gabeko dortsalak banatuko dira. Motxilan edo kamisetan jarri beharko da hornidura puntuan mendi martxakoak identifikatzeko.

6. DERRIGORREZKO MATERIALA

Ondorengo derrigorrezko materiala eraman beharko da 43K, 22K eta 13K lasterketetan eta baita mendi martxan ere:

- Txanodun zira iragazkaitza. Txanorik ez badu, buff edo txapel bat eraman beharko da.
- Edalontzia edo soft-flask
 - Martxa / 13K / 22K: 500ml gutxienez.
 - 43K: 1l gutxienez
- Manta termikoa.

Untzillaitz Zuzen igoera bertikalean ez dago derrigorrezko materialik.

Eguraldi iragarpenen arabera, antolatzaileek material gehiago eskatu dezakete. Email eta sare-sozial bidez informatuko zaie lasterkariei kasu horretan.

7. KONTSIGNA ETA DUTXAK

Lasterketa aurretik frontoian kontsigna zerbitzua egongo da dortsalak jasotzeko gunearen ondoan.

Gainera lasterketa amaitu ondoren dutxatzeko aukera egongo da frontoian bertan.

8. HORNIDURA PUNTUAK, DENBORA MUGAK ETA IGAROTZE KONTROLAK

Ondorengo taulan azaltzen dira ibilbide bietan parte-hartzaileek aurkituko dituzten hornidura puntuak eta bertatik pasatzeko izango diren ordu kopuru maximoak:

Hornidura puntua		43K		22K		13K		Mendi martxa	
		Km	T _{max}	Km	T _{max}	Km	T _{max}	Km	T _{max}
1	Mugarrikolanda	6,1	1h25'			6,1	1h25'		
2	Mañaria	13,5	2h45'			13,5	2h45'		
3	Gatzaieta	18	3h40'	4,6	55'			4,6	1h20'
4	Sagasta	23,6	5h20'	10,1	2h30'				
5	Arrazola	28,8	7h						
6	Pol-pol	33,6	8h30'	13	3h30'			10,5	3h15'
7	Gatzaieta	37,8	9h20'	17	4h20'			14,5	4h30'
8	Mañaria	43	11h	22,4	6h			19	6h

‘Untzillaitz Zuzen’ igoera bertikalean denbora muga 1h30min izango da.

Mendi martxakoei ere denbora mugak errespetatu beharko dituzte beraien segurtasuna bermatzeko.

Hornidura puntuetan antolatzaileek denbora mugak kontrolatuko dituzte, hauek gaindituz gero dortsala antolatzaileari eman beharko diolarik korrikalariak.

Hornidura puntu guztietan aurkituko da bai solido eta bai likidoa.

- SOLIDOA: Meloia, platanoa, txokolatea, fruitu lehorrak, Guayaba bokadilloak, gominolak eta gaileta gaziak.
- LIKIDOA: Ura, Aquarius eta Coca-cola.

Lasterkari bakoitzak bere softflask edo basoa erabili beharko du likidoa hartzeko antolakuntzak ez baitu basorik eskainiko.

Hornidura puntuetan ezarritako zabor-poltsetan bere zaborrak bota ahalko ditu lasterkariak. Puntu hauetan izan ezik, ibilbidean zehar ezin izango da zaborrik naturara bota. Horrela izanez gero, lasterkaria lasterketatik kanpo geratuko da antolatzailea honetaz konturatu bezain pronto.

Ibilbidean jarraitu nahi izanez gero, korrikalariak bere ardurapean lasterketatik kanpo egin beharko du aurrera.

9. LASTERKETA UZTEA

Lasterketa lesio baten ondorioz uztea beharrezkoa bada, 112 zenbakira edo antolatzaileen ondorengo zenbakira deitu: **615 73 60 36**

Beste ezintasunen baten ondorioz uztea erabakiz gero, ibilbideko ondorengo lekuetara iristea komeniko litzateke antolakuntzak lasterkaria Mañarira bueltan eramateko:

- Atxarte
- Sagasta
- Arrazola
- Urkiola
- Gatzaieta

Kasu hauetan, antolatzaileei abisatu beharko zaie lasterketan jarraitzen dutenen kontrola bermatzeko.

10. KATEGORIAK

- Absolutua (emakumezko/gizonezko): 16tik gorako parte hartzaile guztiak.
- Mañariarra (emakumezko/gizonezko)

11. SARIAK

Ondorengo sariak banatuko dira lasterketa bietan bai emakumezko eta bai gizonezkoentzat.

Kategoria	Postua	43K	22K	13K	Untzillaitz Zuzen
Absolutua	1	300€ Garaikurra Txapela	150€ Garaikurra Txapela	50€ Garaikurra Txapela	50€ Garaikurra Txapela
	2	200€	100€	40€	40€
	3	100€	50€	30€	30€

Irabazleek IV.edizioan parte hartzeko dortsala ziurtatuta izango dute antolakuntzaren inbitazioei esker.

Lehenengo Mañariarrak ere sarituak izango dira hiru lasterketetan.

Sari banaketa Mañariko plazan izango da ondorengo ordutegian:

- **13K, 22K eta Untzillaitz Zuzen lasterketak:** 13:00
- **43K lasterketa:** 16:30

12. DURANGALDEKO KOPA

Mañaritik Atxetarako 13K eta 22K lasterketak 'Durangaldeko Kopa' barruan ere egongo dira; Mari Kopan 22K lasterketa eta Sugaar Kopan 13K lasterketa. Kopa hau egingo den bigarren aldia izango da (<https://durangaldekokopa.com/>).

Bertan Durangaldeko zortzi mendi lasterketetan parte hartzen duen edonork puntuak lortuko ditu. Sailkapen nagusian agertzeko zortzi lasterketatik gutxienez lau egin beharko dira. Gehiago eginaz gero lau puntuazio onenak erabiliko dira sailkapen nagusirako.

Zortzi lasterketen ostean lehen 5 sailkatuak sarituak izango dira ondorengo sariak jasoz:

POSIZIOA	MARI KOPA	SUGAAR KOPA
1	500€ + Txapela	250€ + Txapela
2	400€	200€
3	300€	150€
4	200€	100€
5	100€	50€

Sari banaketa Aldapegora mendi lasterketaren sari banaketarekin batera egingo da 2026ko urriaren 24an.

13. NOLA HELDU

Durangeldean (Bizkaia) kokatuta dago Mañaria, Urkiola Parke Naturalaren sarreran Durangotik helduz gero.


Bertaratzeko aukera ezberdinak ondorengoak dira:

Autobusean:

- Durango-Gasteiz autobus zerbitzua:
<https://alavabus.eus/es/linea-18-durango-vitoria-gasteiz>
- Bizkaibus zerbitzua Bilbotik
http://apli.bizkaia.net/APPS/DANOK/TQ/DATOS_PARADAS/ITINERARIOS/A39331.PDF

Autoz:

- Bizkaia edo Gipuzkoatik:
 - Durangora iritsi, BI-623 errepidea hartu eta 4km ostean Mañarira iritsiko zara.
- Arabatik:
 - Otxandio iritsi eta BI-623 errepidea jarraituz Urkiolara joan eta handik Mañarira jaitsi.



GOOGLE MAPS-eko esteka: <https://maps.app.goo.gl/Dz2FeMWuypY8dG7K7>

OHARRA: Kotxez, furgoneta edo autokarabanan datorrenentzat, parking-ak prest izango ditu antolakuntzak Mañariko irteeran Durangoko zentzuan.

14. ANTOLAKUNTZAKO MAPAK

14.1. Irteera/Helmuga gunea

Ondoren azaltzen dira lasterketaren ondorioz antolaturiko gune ezberdinak Mañariko plazaren inguruan:



14.2. Aparkaleku eta lotarako guneak

Autoa edo autokarabana aparkatzeko guneak Mañariko irteeran egongo dira Mañariko plazatik 500 metrotara Durangoko norantzan.



GOOGLE MAPS-eko esteka: <https://maps.app.goo.gl/Dz2FeMWuypY8dG7K7>

P1 aparkalekuan ostiral arratsaldeko 19:00tatik aurrera aparkatu ahal izango da autokarabana edo furgonetan lo egin nahi bada. P1 aparkalekua izango da aparkaleku nagusia. Hau betetzen bada, P2 aparkalekua erabiliko da.

Aurreko egunean lo egiteko beste leku aproposa Urkiolako santutegi ondoko aparkalekua edota Izurtzako edo Durango sarrerakoak izan daitezke.

Urkiolako aparkalekua:



GOOGLE MAPS-eko esteka: <https://maps.app.goo.gl/7fh3jhMoffBuhmG6>

Izurtza (P4) eta Durangoko (P5) aparkalekuak:




GOOGLE MAPS-eko esteka:

P4: <https://maps.app.goo.gl/kaZhhZZ52Zd1vZKHA>

P5: <https://maps.app.goo.gl/tCR8oYRSTtMwfQ6Z6>

14.3. Herriko jatetxeak

Mañariko herrian hiru jatetxe aurkituko dituzue:



Arri Toki taberna

P1 eta P2 aparkalekuen ondoan dago eta bertan eguneko/asteburuko menuak edota ogitartekoak jateko aukera dago.



Herriko taska

Mañariko plazan kokatzen da irteera/helmuga gunean. Lasterketa egunean asteburuko menuak eta ogitartekoak zerbitzatuko dira.



URKIOLA* hotela

Urkiola gainean, santutegiaren parean taberna/jatetxea egongo da lasterkarien zain dagoen laguntzaile orok mokadu bat hartzeko.

14.4. Hontza museoa


Hontza museoa bisitatzeko aukera paregabea izan dezakete lasterkarien laguntzaile eta familiarrek lasterkariak Mañarira bueltatu bitartean. Mañariko plazatik 150m-ra aurkitzen da eta Mañariko derrigorrezko bisita bat da botanika, fungi, geologia, paleontologia edo zoologia bezalako arloetan barneratzeko.

14.4. Herriko denda

Mañariko plazaren aurrean herriko denda irekita egongo da lasterketa egunean lasterkari eta laguntzaileek beharrezko produktuak erosi ahal izateko.


15. LASTERKETA NON IKUSI

Lasterketa ikusi nahi izanez gero, ibilbidera hurbiltzeko jarraian azaltzen diren gunek dira gomendagarrienak:



MAÑARIA-MUGARRIKOLANDA eta INUNGAÑE-MAÑARIA

Mañaritik abiatuta, 13K eta 43K lasterketetako lehen igoera izanik, herritik bertatik igo zaitezke lasterketaren hasiera ikustera.




Mañari-Mugarrikolanda (lehen 3km) eta Inungane-Mañaria (11 eta 12.km artean)

Mañarira lasterkariak Inunganetik jaitsiko dira eta Mañariko plazara 9:20 inguru helduko dira 43K lasterketako lehenak.

MAÑARIA-GATZAIETA eta UNTZILLAITZ-MAÑARIA

Mañaritik bertatik, 43K lasterketako bigarren igoera (9:20tik ingurutik aurrera) eta 22K lasterketako lehena ikusteko aukera dago (9:00tik aurrera).




Mañari-Gatzaieta (13 eta 17.km artean) eta Untzillaitz-Mañaria (39 eta 43.km artean)

Lasterketa bietako azken jaitsiera ikusteko aukera ere izango duzue herritik Untzillaitzera doan bidea igoz (22K lasterketa 11etatik aurrera eta 43K lasterketa 13:15tik aurrera). Eta noski, 9:15etatik aurrera lehen aldiz egingo den Untzillaitz zuzen igoera bertikala ere bertatik pasako da. Aukera polita da igoera bertikala ikusiaz Untzillaitz igo eta tontorrean edo aldapa behera 22K edo 43K lasterkariei azken animoak ematea.

ATXARTE

Atxarteko zubian lasterkariak bide erromatarretik jaisten ikusteko aukera egongo da (18 eta 19.km beheko irudian).



Gatzaieta-Atxarte (19,5 eta 21.km artean) eta Astxiki-Artola (22.km)


Bestetik, Astxikirako igoera (19,5km-tik 21.km-ra) zein jaitsierara (22.km, Artola) hurbiltzeko lekurik onena Atxartetik izango litzateke.

22K lasterketako lehenak 9:30 inguru pasako dira Atxarteko zubitik eta 10ak inguru Artolatik.

43K lasterketako lehenak aldiz 10:30ak inguru Atxartetik eta 11:00 inguru Artolatik.

ARRAZOLA

Arrazolatik 43K lasterketako hornidura puntura hurbiltzea litzateke aukerarik onena.




Arrazolako hornidura-puntu (28,8.km)

43K lasterketako lehenak 11:30etatik aurrera pasako dira hornidura puntutik.

URKIOLA

Urkiolatik Larrano eta Urkiolamendi tontorretara hurbiltzea lirateke aukerarik onenak Pol-poleko zelaietatik pasatuz.



Larrano (25,5.km), Pol-pol (33,5.km) eta Urkiolamendi (34,4.km)

Urkiolan bertan eta Hiru gurutzeen begiratokian ere lasterkariak ikusteko aukera egongo da.

22K lasterketako lehenak 10:30 inguru pasako dira Larranotik, 10:40 Urkiolamenditik eta 10:45 Urkiolatik.

43K lasterketako lehenak aldiz 11ak inguru pasako dira Larranotik eta 12:30 inguru Urkiolatik.

GATZAIETA

Hornidura puntu honetan lasterkariak bi aldiz ikusteko aukera dago. Lehen Mañaritik igotzen direnean eta bigarrena Urkiolatik jaisterakoan.

Horrez gain, Untzillaitzeko diagonal txikirantz joateko aukera dago, lasterkariei azken igoerarako animoak ematera.



*Gatzaieta (18.km eta 37,6.km)
Untzillaitzeko diagonal txiki hasiera (39.km)*

16. ANTOLATZAILEEN OHAR ETA ESKUBIDEAK

- Lasterketa guztiak korrikan edo oinez egin beharko dira. Bizikleta, ibilgailu motorizatu edo bestelako kanpo laguntzarik ez dago onartua.
- Ibilbidean markatuta egongo da eta marka horiek ez jarraitzeak deskalifikazioa dakar.
- Bastoiak erabiltzea onartuta dago. Hornidura puntuetan laguntzaileen batek eman diezaioke lasterkariari edo jaso ditzake. Ibilbidean zehar bastoiak ezin dira jaso edo utzi, eta horrela eginez gero, deskalifikatuta geratuko da lasterkaria.
- Lasterkariaren bat bere izenean ez dagoen dortsal batekin badago, antolakuntzakoek korrikalaria geratuko dute honetaz ohartu bezain pronto. Horrekin batera dortsala kendu eta saikapenetik kanpo geratuko da.
- Mañaritik Atxetarako antolakuntza ez da kargu egiten dortsalaren erabilera okerrean aurrean eta lasterketako ibilbidean zerbait gertatuz gero, lasterkariaren ardura izango da bere segurtasuna bermatzea.
- Lau lasterketetan (43K, 22K, 13K y Untzillaitz Zuzen) ezin izango da belarrietan aurikularrekin joan hezur-aurikularrak izan ezean.
- Mendi martxaren kasuan txakurrak eraman ahal izango dira, baina beti lotuta egon beharko dute, Urkiolako Parke Naturalean dagoen araudia dela eta. Lasterketen kasuan, ezingo da animaliarik eraman.
- Eguraldiaren ondorioz antolakuntzak ondorengo aldaketak egin ditzake:
 - Ibilbidean aldaketak parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko.
 - Derrigorrezko material gehiago eskatzea.
- Iragarpen meteorologikoen ondorioz proba bertan behera utzi behar izanez gero, ez da itzuliko izen-emateen dirurik.
- Antolaketak lasterketako araudia aldatzeko eskubidea du uneoro. Aldaketaren bat egonez gero, parte-hartzaileei informazio eguneratua helaraziko zaie email bidez.

17. BABESLE NAGUSIAK ETA LAGUNTZAILEAK

Gure eskerrik beroena hirugarren urte hontan ere ondoan izan ditugu babesle nagusi zein laguntzaileei.

BABESLE NAGUSIAK



LAGUNTZAILEAK

ARRI TOKI
TABERNA



Natur Zientzien Museoa
Museo de Ciencias Naturales



ALBAÑILERIA Y CONSTRUCCIONES MOU S.L.

MOU

ERA GUZTIETAKO LANAK EGITEN DITUGU
GREMIOEN KOORDINAZIOA



ETXELAR
AROSZTEGIA



rótulos
dena Rot



ORBEA



MAÑARITIK ATXETARA

www.mañaritikatxetara.com



manaritikatxetara@gmail.com



[manaritikatxetara](https://www.instagram.com/manaritikatxetara)